

# Balio Proposamena

Gaur egun munduan jasanezinak diren egoerak ematen dira egunero, izan ere, 700 milioi pertsona, pobrezia osoan bizi egiten dira gaur egun, osasuna, janaria edota hezkuntzarako oinarririk gabe egunero. Bestalde, planetari dagokionez, tenperatura altuenak erregistratzen ari dira urtero, izan ere, 2019 historiako bigarren urte beroena izan zen. Amaitzeko, aipagarria da 70 milioi pertsona gerretatik ihes egiten ari direla orain, eta egoera hauek bakarrik 3 adibide baino ez dira munduan ematen diren milioi egoera jasanezinetik. Beraz, gure produktua kontzientzia pizteko motorra izateko helburua dugu.

Themis-en produktua, kamisetak izango dira, balorez osotuko kamisetak. Kamiseten diseinua "streetwear" estiloa izango da, aire moderno eta berriarekin. Gure produktua erosterakoan, bezeroak GKE edo kausa benefiko batera bidali ahalko dut erositakoaren parte bat. Kamiseten diseinua GKE en helburuetan inspiratuta egongo da. Kontzientzia pizteko mezu bat idatzita izango dute. Moda pieza paregabea eskaintzeaz gain, kontzientzia pizteko aukera paregabea ere ematen da. Gure produktuen garrantzia baloreetan oinarrituko dela da. Beraz, mezua, osagaiak, hornitzaileak eta lankidetzan arituko garen GKE-ak, balore hauek izan behar dute: Langileen lan-baldintzak errespetatzea, berdintasuna sustatzea, pobrezia konpontzea eta baita slow fashion kontzeptua errespetatzea. Azken finean mundu hobearen helburua lortzea eta horregatik borrokatzea. Gurekin lankidetzan arituko diren GKE-ak, balore horiek sustatu behar dituzte, beraz, lehen esan bezala, mezua eta diseinua, GKE- tan eta hauen baloreetan inspiratuta egongo da: pake mugimenduak, Black Lives Matter, Unicef, Save the Children, genero berdintasuna, justizia besteak beste. Kalitate altuko kamisetak eskainiko ditugu, diseinu eta errealizazioa zainduz.

Lan baldintzak errespetatzeaz gain, hornitzaileak eta behar diren baliabide guztiak, "fairtrade" marka izango dutela egiaztatuko da, aipatutako balore guztiak errespetatu eta kontuan hartuko direlako ekoizpenean eta banaketan.

Gure kamisetek prezio eskuragarri bat izango dute, baina bezeroa bidezko den eta eskulanaren prezioa ordaintzeko prest egongo da. Gure kamiseta bat eskuratzeak ez dakar bakarrik kalitatezko produktu bat lortzea, baizik eta, horrez gain, lehen aipatutako elkarte ongile hauentzako ehuneko bat bideratzea, mundua ulertzeko modu batekin bat egitea eta enpresen etekina gizartearaztea dakar ere.